

## **Funtsezko baliabideak**

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroarekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak. Enpresa baten funtsezko baliabideak ondorengo kategorietan sailkatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza baliabideak.

Gure kasuan, bizikletaren eta energia biltzeko baterien produkzioa externalizatuko dugu, izan ere, kanpoko enpresa bati erosiko dizkiogu. Ondorioz, ekoizpena egiteko baliabiderik ez dugu behar. Gainera, kostuak murrizteko asmotan, ahalik eta bizikleta eta bateria merkeenak erosten saiatuko gara.

Baliabide fisikoei dagokionez, salmentarako puntua (lokala) gure kasuan, momentuz, bakarra izango da. Hiriaren erdigunetik jartzea pentsatzen dugu, jende gehiagok ikusgai izan dezakeelako. Alokairuan izango dugun lokal komertziala da eta bertan bezeroen harrera egiteko gela eta bizikletak gordetzeko biltegia izango ditugu.

Banaketaren sareari dagokionez, hasiera batean ez ditugu bizikletak beste herri edo hirietara garraiatu. Bezeroak izan behar dira gure salmenta puntura etorri behar izango direnak gure proiektuarekin bat egin nahi baldin badute. Beraz, ez dugu garraio elementuen beharrik izango.

Gure lokala ziur mantentzeko, segurtasun sistema bat izango du, alarma eta kamarak jarritz. Ordenagailu bat eta inprimagailu batez ere baliatuko gara, gure enpresa kuadetzen laguntzeko eta gauzak eguneratuak izateko. Horrez gain, TPV-a, datafonia eta tiketak inprimatzeko gailua izango ditugu.

Gure kasuan ez dugu patenterik, egile eskubideak mantentzea nahiko garestia delako.

Giza baliabideei dagokionez, enpresaren bazkideen taldeaz osatuta dago. 4 bazkide gara guztiara eta bakoitzak ardura bat izango du. Alde batetik, bizikletak ezin hobeto konpontzea dakien pertsona dago, hau da, bizikleten mantenimenduaz arduratuko dena. Gainera gure taldeko batek inteligentzia emozional handia dauka. Horrek taldearen kudeaketa egiteko ardura izango dugu. Arlo administratiboa eta ekonomikoa beste batek kudeatuko du eta azkenik, arlo komertziala (salmentak, sare sozialak, publizitatea, web orrialdea...) antolatu eta kontrolatuko duena dago.

Finanantziarioari dagokionez, ez dizkiogu diru-laguntzak bankuari eskatuko. Izan ere, ekainean bakarrik gure enpresa irekitzeko asmoa dugulako eta ez du merezi hilabete bakarrerako mailegu bat eskatzea. Hilabete horretan, dena martxan jarri egiteko lau kideok guk, gure poltsikotik inbertituko dugu gure proiektuan. Bakoitzak, 1.000 euro jarriko ditugu; beraz, guztira, 4.000 euro izango dira genituzke.